

«Literaturan handikeriak barregura ematen du»

Garraiolaria hilda dago, zerbitzugune batean aurkitu dute. Martini eskatu diote haren kamioia hartzeko eta bidaia bukatzeko. Zaratarik gabeko autobidea eraiki dio Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) *Iragaitzaz –ilunbistan–* nobelan. Istripurik izaten ez duen narratzailea da, helmugara konturatu gabe eramango zaituena. Liburua sinetsi egingo duzulako. Oso gertakari “normalak” kontatzen dituelako, kontu “interesgarriak” bide bazterrean utzita.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Josu Santesteban

Bitxikeria gutxi nobela honetan. Kendu egin al dituzu?

Kendu baino, hasi aurretik badakit zer ez dudan sartu behar, eta gainera ez zait batere kostatzen kentzea. Dena dela, esango nuke sintesi lana egiten dudala gehiago, hasiera hasieratik muinera joan; horrela ez da bitxikerian erortzeko tentaldirik izaten. Niri istorio

“interesgarriak” ez zaizkit batere interesatzen; afalosterako ongi daude, denoi gustatzen zaizkigu txistek eta gertakari xebreak, baina niri interesatzen zaidan literatur lanak ez dezake horrelakorik sartu. Interesatzen ez zaidan leku batera eramango ninduke horrek.

Funtsa ateratzea interesatzen zait. Askok esan izan didate nire liburuez, “hau bizi



Pello
Lizarralde



Exotismoa

“Oso indarrean dago eta oso kaltegarria da literaturan. Imitatzen da ulertzen ez dena, hain zuzen exotikoa delako, harritzen zaituena baina zuk bizi ez duzuna. Literatura erabili daiteke ebasiorako, urruntzeko... Baina nik inguratu egin nahi dut garen—edo naizen—horretara. Horretan Txekhovek edo Carverrek laguntzen didate, baina ez García Márquezek. García Márquez maisu handia izan da, baina ez da nire maisua izan”

dugunetik oso hurbil dago”. Baina horretarako funtsezkoenera jo behar duzu, bestela adornoetan eta efektuetan galtzen zara. Horiek ez dute zirrarak eragiten, deigarriak dira eta irakurtzen duenak harritu aurpegia jartzen du, baina etorri bezalaxe joan egiten dira. Nik irakurtzerako orduan esperientzia bat sentitu nahi dut eta irakurleek esaten didatenean horrelako zerbait sentitu dutela konturatzen naiz nahi nuena lortu dudala. Irakurlea zegoen lekutik pixka bat ateratzea agian asmo handiegia da, baina, nik uste, horretaz konbentziturata hasten naizela idazten.

Idazleak bere esperientzia pertsonaletik idatzi behar duela esan zenuen *Volgako Batelariak* blogean duela urte batzuk. Garraiolaria da liburu honetako protagonista; garraiolaria zeure aita ere. Zenbat dago nobelan esperientzia pertsonaletik?

Egin nezakeen, oso erraz gainera, nostalgian bidetik aitarekin bizi izan nituenen kontakizuna. Ez ahaztu gainera autoestopista izandakoa naizela: milaka kilometro egin izan ditut eta herri askotako garraiolariak ezagutu ditut. Horiek hartu, bildu eta kontatzen hasi nintzekeen. Ez dut bide hori hartu; hortik urruntzen saiatu naiz eta esfortzua egin behar izan dut istorioa gaur gaurkora ekartzeko. Alde horretatik autobiografiatik gutxi dauka, ez du jasotzen niri gertatua; baina, aldi berean, hori esatea gezurra da: bizi izan dudanak balio izan dit

hau idazteko, baina ez hala gertatu delako, hala jaso dudalako baizik.

Dena da beti autobiografikoa, bestela gezurretan ari zara. Eta gezurretan ari zara ustez oso gauza interesgarriak kontatu nahi dituzunean baina zugandik oso aparte daudenean. Horregatik ez dut sinesten idazle konprometituan: idazle engaiatua askotan burgesa izaten da, urrundu eta ez dakit zeren edo noren alde egin nahian. Neure buruari egin diezaiokean mesederik handiena naizen bezala agertzea da. Ez dut inoren eta ezeren errebin-dikaziorik egingo. Aha-

“Ez dut sinesten idazle konprometituan. Idazle engaiatua askotan burgesa izaten da, urrundu eta ez dakit zeren edo noren alde egin nahian”

leginduko naiz nire bizitzatik besteenetara joaten, baita alderantzizko bidea egiten ere. Egiatasuna bilatu behar dut eta horretarako ezin naiz bestela ager-

tu; ezagutu izan ditut garraiolariak, ezagutzen ditut orain ere batzuk, eta pentsatu nahi dut haiekin nagoenean zerbait banai-zela. Liburuan dagoen guztia kezkatzen nauelako dago, ikusi, entzun eta sentitzen dudalako; ez naiz inoren alde ateratzen, ez dut erretraturik egin nahi; nire kezka ere badituen norbait jarri nahi dut, egiatzko norbait.

Liburuak Martin protagonistaren bidaia kontatzen du; heriotza batek eragiten du berak bidaia hori egin behar izatea, eta amaieran beste heriotza bat azaltzen da. Horrela esanda *road movie* bat espero liteke, bidaiaren esa-

nahi inizatiko eta guzti. Ez dut sentazio hori izan. Zein da bidaia honen zentzua?

Hemen dagoen errepeidea ez da Jack Kerouac-ena. Asko interesatu zait beti Ipar Amerikako errepeidearen mitoa, gainera uste dut hanka bat testu klasikoetan duela, *western* generoak bezalaxe. Oraindik ere *western*-ak kontatzen dira nahiz eta beste itxura bat eman, eta nahi baduzu liburu hau izan liteke *western* triste bat. Genero horretan nik uste bilaketa bat dagoela: protagonista abiitzen da nora doan oso ondo jakin gabe, baina susmoa du bukaeran zer edo zer izango duela eta bidean argi pixka bat aurkituko duela. Martinen bidea aldiz, laberintikoa da: galduta dago, badaki nonbait sartu dela galdera ikaragarri batek bultzatuta, baina ez daki aterako ote den. Heriotza batek bere heriotzaren kontzientzia ekarri dio. Maite duzun norbait hiltzen zaizunean haren hutsunea sumatzen duzu eta horregatik sufritzen duzu; baina, nik uste, benetako oinazea, kezka eta ardura izaten dela haren heriotzak jartzen dizula zurea begien aurrean. Heriotza oso tarteka egiten zaigu kontziente, gordin. Martinek hildako bat hartzen du, heriotza bera begien aurrean edukitzeko.

Martinek bestearen kamioia entregatzen duenean, hildakoaren zirkulua ixten du eta beste bat hasten du: berea. Hori inork ez daki nola bukatuko den, berak ere ez. Labirinto horretan dabil galduta.

Elkarrizketek arreta deitu didate. Pertsonaiek ez dute pisuzko ezer esaten... hutsalak ematen dute, transzendentziarik gabeak.

... bai, baina era berean, horren atzean iradokitze aukera asko utzi dituzu. Nola egiten da hori?

Askotan galdetzen didate. Ez dakit, ez dago teknikarik horretarako. Ez zaizkit gauza transzendentelak gustatzen. Letra larriak ez du eguneroko bizitzarako balio. Heavy musikarekin



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispanavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

Sei urteko sendaldia

Sei urte pasa ditu Lizarraldeak nobelarik argitaratu gabe. Zertan arituen? Sendatzen. "Sendaldia" behar izaten du liburu artean. "Zorionez batere estutzen ez nauten editoreak izan ditut, oso editore diskretoak, sekula 'zertan ari haiz?' edo 'zer asmo dituk?' galdetzen ez dizutenak".

Baina eskuak ez ditu inoiz gelditu izan. Natalia Ginzburgen *Arratseko ahotsak* (Igela 2003) eta Gian Celatiren *Denak hasperenka* (Igela 2005) itzuli zituen. Eta irakurri egin du, noski. Idaztea baino askoz hobe iruditzen zaio, kargatu egiten du. Ez du tesietan oinarritutako literatura idatzi orain arte, "ezta sekula idatziko ere", erantzunen orde galderak etortzen baitzaizkio gogora; horietako batean murgiltzen da ondoren.

Orduan, irudia etortzen da: *Larrepetit*-en gizon bat zen, zubi gainean euripean, ibaira eroritako auto bati begira. Txikitatik zuen buruan. Oraingoan albiste batetik etorri zaio, berarentzat ezohikoa den bidetik: garraiolari bat hilda agertu da zerbitzugune batean. Ia bederatzi hilabeteren ondoren erabaki zuen hor liburu bat zegoela. Horixe *Iragaitzaz -Ilunbistan-* nobelaren istorioaurrea.

horixe gertatzen zait: gitarra jole horiek ez dakite zer jo nahi duten, hatzak oso azkar mugitzen dituzte, baina ez dute niri gustatzen zaidan ezer jotzen, mezan baleude bezala ari dira. Horrek barregura ematen du. Literaturan

handikeriak barregura ematen du. Konbentzitu nahi baduzu, txikitik egin behar duzu; txikitik harrapatu dezakezu irakurlea lepotik eta nahi duzun tokira eramanez. Beste batzuetan ez duzu lortzen, dudarik gabe. Emozio ikaragarriak eta bitxikeriak nahi dituenak, xelebrekeriak gustuko dituenak, gertaera harrigarrietan murgiltzea gustuko duena, aurreneko lerrotik aspertuko

da hemen eta liburu hau somnifero bezala erabiliko du.

Arrisku hori aurreikusia duzu beraz; alegia, irakurketa oso testuala egiten duenak ez duela gustuko izango.



Dive Tarpoon Urpekaritza





Kirol portua, A7 lokala • 48992 Getxo • Tel / Faxa: 94 4912577

e-posta: divetarpoon@euskalnet.net • web orria: www.divetarpoon.com




Dударик gabe, baina ni galtzaile ona naiz. Bada-
kit zer arrisku hartzen ditudan eta norbaitek esaten badit seko aspertu dela eta ez duela orri bat pasatzerik izan, arrazoia emango diot, horretarako bidea badagoelako. Idaztean arriskuak hartzen dira. Txikitik konbentzitu nahiak horrelakoak ditu. Heavy zale asko dago, eta folk-rocka eta country-rocka gustatzen zaigunoi detaile txikiekin konbentzitzea gustatzen zaigunez... baina ez dakit konparazioak balio duen.

Bai, jarrai dezagun ildo horretatik: kamioi eta errepede giroko nobelan isiltasun sentsazioa nagusi. Esan, zer musika jarriko zenioke nobelari?

Ez nioke musikarik jarriko, ze nik honekin egin nezake film bat; norbaitek hartuko balu eta esan film bat egingo duela debekatu egingo nioke musika sartzea, ez bada zuzeneko. Zinema modernoan Wim Wendersek eta esaten zuten "zuzeneko musika ez bada, ez ezer sartu". Pertsonaia autoan doala irratia piztu eta musika entzuten bada, hura jasoko du pelikula, baina soinu bandarik ez du izango. Musika irudi hutsak lortu ezin izan duena betetzeko eta markatzeko erabiltzen da. Isiltasuna oso astuna egiten da, azken batean, barruan daukagun galdera ikaragarri horrek beste erantzunik ez duelako: isilik egotea. Film asko jarri nitzake adibide gisa, baina Jaime Rosalesen *La soledad* aipatuko dizut. Hor badago atentatu bat oso modu harrigarrian eta soilean kontatua...

... autobus bat lehertzen da...

... horixe. Hurrengo sekuentzian bazkaritan ari da ama hori, semea galdu berri duena, beste birekin, eta esaten duten guztia da "entsaladak badu gatzik?". Baina ongi pentsatuz gero, horrelako gauza ikaragarri bat gertatu eta gero zertaz hitz egiten duzu? Atentatua analizatzen hasiko al zara? Edo ez dakit zer arrazoi pertsonal eta politiko ematen? Ez. Ez daukazu hitzik horretan sartzeko. Oinazea eta harridura hain dira handiak, esaten duzula "gatza falta zaiola uste duzu?".



Iruñea bare eta bero dago Lizarralde mintzo den bitartean. Laster ordea, zarataren hiriburua bihurtuko da. Zerikusi gutxi, Irageitzaz -ilunbistan- nobelan nagusi den giro isilarekin. Zerbaitengatik joaten da idazlea hiritik at jaietan. Hemingwayk agoanta ditzala builosoen espeziekoak.

nik hori eragin nahi dut.

Martin pertsona bakartia da, zure beste pertsonaia asko ere bai.

Azkenean denok bakarrik gaude gauza batzuen aurrean, eta jendez inguratuta gaudenean ere galdera garrantzitsuei guk eman behar diegu erantzuna. Heriotzaren aurreko hausnarketarik egin ez baduzu eta ez badakizu prestatua zauden edo ez, inork ez dizu lagunduko. Azkenean zu bakarrik hilko zara. Denok bakarrik hiltzen gara. Besteek laguntzen digute, dudarik gabe, elkarrekin egotea eta elkarrekin pentsatzea da gizakiak daukan salbazio bakarrenetakoa. Liburuaren sarrean dagoen Albert Caracoren aipuak horixe dio: "Hil behar duen jendea maite dugu, eta maite dugu soilik hilkorrak izanik mehatxatuta sentitzen garelako".

Larrepetit-ekin Euskadi Saria eta Kritika Saria irabazi zenituenean esan zenuen kazetariok lehen ez bezalako arreta eskaini genizula. Hau idaztean presioa sentitu al duzu?

Niri beste jende guztiari bezala gustatzen zait kasu egiten didatenean, baina kasu gehiegi egiten didatenean ezinegona eragiten dit, ez zait gustatzen hainbeste jende gainean egotea denbora puska batean. Hilabete batzuk iraun zuen horrek eta azkenerako burua nahi

ez duzun toki batean jartzen zaizu. Txorakerietan pentsatzen hasten zara, idazte hutsarekin zerikusirik ez duten gauzak dituzu buruan eta horrek aztoratu egiten nau. Beraz, liburu berriarekin hasi nintzenetan konturatu nintzen inoiz baino lasaiago egon behar nuela, bestela txorakeria handiren bat egingo nuelako. Inoiz baino ahalegin handiagoa egin behar izan nuen, harik eta jakin arte zer idatzi behar nuen eta ez zer idatz nezakeen. Bihar bertan idatz dezaket liburu bat eta desastre hutsa izango da; orduan nire buruari esan nion: “egon hadi lasai eta ez ezak idatzi konbentzitututa egon arte”. Itzul-tzeak eta irakurtzeak lagundu zidan. Badakizu bizitza normala egiten duenak, burua hor daukanak eta literaturaren harrak jota dagoenak azkenean zerbait bota beharko duela. Oso-oso gaztea zarenean odola borbor hasten zaizu eta egin behar ez direnak egiten dituzu, baina zorionez niri honek guztiak adin batekin harrapatu nau. Horrek ere lagundu egiten du.

Behin baino gehiagotan esan izan duzue interesa pizten dizuten euskal idazle gutxi ikusten duzula. Zer irakurtzen du Pello Lizarralde?

Gauza asko, baina ez dizkizut izenak emango memoria oso ona dudalako eta zerrenda luzea bota nezake. Astero inguratzen naiz liburu dendetara, jakin min handia dut. Badira txorakeria asko esaten dituztenak, “40 urtetik aurrera nobela irakurtzen duena ez da irakurle heldua” eta horrelakoak; ni oso nobelazalea naiz, saiakera ere irakurtzen dut baina gutxiago; eta poesia garai batean asko, baina orain askoz gutxiago. Irakurzale naizen aldetik idazle asko nahi nituzke gustuko izan, euskaraz ala erdaraz. Baina ez ditut topatzen, ez bakarrik euskaraz, bestela ere ez. Seguruenik bizi dugun mundu honek krisi latz bat ekarri du sormenean. Arrazoietan ez naiz sartuko, ez dakit analizatzen. Mina ematen dit, euskaraz ari diren idazle asko ikusi nahi nituzke, gazteak, berriak eta interesatzen zaizkidanak, baina oso gutxi daude. Badira bakan batzuk baina...

Adibidez?

Ez dizut izenik emango. Aitortu behar dut nire ustez euskaraz izan den idazlerik handiena Ramon Saizarbitoria dela. Ez daukat

Hego Amerikako literatura

“Ez zait batere interesatzen. Garai batean asko irakurri nuen baina gero nire bizitzatik oso aparte ikusi nuen, hori da Hego Amerikako estilo batzuen gaitzik handienetakoa. Hainbeste arrakasta izan duten mundu fantastiko horiek literatura plazebo bat ekarri dute. Istorio gustagarriak, ‘ai, ze bitxia’, batez ere istorio sentimentalak, istorio edulkoratuak, istorio penagarriak”

zalantzarik, idazle handia da eta bere izena lasai botako dut. Gazteak badira batzuk, baita aspaldi ezer idatzi ez dutenak ere. Poz handia eman zidan, esate baterako, *Sautrelako* grabaketa egitera joan, Xabier Gantzarainekin eta Jon Benitoren hitz egin eta ikustea ze literaturzaleak diren. Azken batean nik uste dut literaturaren gaitz hauek guztiak irakurzaletasuna gutxitzetik datozela. Oso idazle gutxi dago oso gutxi irakurtzen delako, besteak beste. Eta argitaratzen duten horietako asko nire ustez oso irakurle kaxkarrak dira, oso gauza gutxi irakurtzen dute edo gehien saltzen dena. Normalean, ez beti; salbuespenak badaude. Irakurzaletasunik ez dagoen honetan normala da idazle ikaragarriak ez ateratzea. Adinean behera egin ahala irakurle kaxkarragoak daudela uste dut. Askotan aipatzen dut: orain oso ezagunak diren obrak euskal idazle askok 20 urte inguru zituztenean idatzi zituztela, eta ez ziren edozein gauza. Berehala ikasi zuten, urte asko zeramatzatelako irakurtzen. Irakurritakoa beren iragazkitik pasa zuten eta denok ikasi dugu hortik, baita imitatu ere. Uste dut William Faulknerrek esan zuela “imita ezazu gelditu gabe harik eta zurea topatu arte”. Baina hori bukatu behar da, behin urte batzuk beteta ezin da behin eta berriz errepikatu. ■

PIXKA, BAT ES, MUCHO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikariko Sailburuordetza

UKAN RECORDS

Hartu doan
pixkabatesmucho.com
webgunetik.

Aresti jaio zela 75 urte

Bizi al zara Gabriel?

Haurrak lehenengo negarra egin du. Bilbo, urriak 14, 1933. Gabriel jarriko diote izena gurasoek eta, oraindik ez dakiten arren, poeta izango da. Gainera jaustekoa zaien Francoren diktadurapeko euskal poeta handiena beharbada. 75 urte joan dira lehen malko haietatik.

Aresti 1975ean hil zen. Horregatik jarraitzen dugu bizi ote den galdezka.

GORKA BEREZIARTUA

ERREPORTAJE HONEK EZ DU hil kanta izan nahi, ez garai zaharren nostalgia, ezta eferide baten aitzakian betetako orri sorta ere. Biografia bat kontatzea baino, Arestik gaur egungo irakurle eta idazleengan daukan itzalaz jardutea egokiago iruditu zaigu. Literaturaren historia arotan eraikitzen bada, aro berri bakoitza etxe-aldaketa

Lagun artean ageri da Gabriel Aresti argazkian. Bere biografiaren azalean eta hainbat karteletan erabili dute foto bera ondoren.

baten tankerakoa da; eta denok noizbait frogatuko genuenez, liburuak izaten dira edozein traste-garrioren biktima kutunak. Ezinbestekoa ez dena, nahita edo nahi gabe, ahaztu egiten da. Beraz: ahaztu egin al dugu Aresti, aitaren etxe zaharrean? Alokairuan daukagun pisu berri honetara ekartzen asmatu al dugu?



Erantzunen bila Angel Zelaie-tarengana jo dugu. Berea da Gabriel Arestiren biografia, 2000. urtean Susa argitaletxeak kaleratua. Derioko Seminarioan ikasten ari zeneko garaietara eram gaitu solasak: sinadura bat zen Gabriel Aresti, luma madarikatu bat, ikasle euskaltzaleen artean interesa pizten zuena. Zelaietak Juan San Martinen bidez ezagutu zuen izenaren atzean zegoen gizona. Uda batez izan zen, Eibarren. Aresti han ari zen lanean eta afaltzera joan ziren hirurak. Afalostean Lambretta batean eraman zuen poeta Zelaieta gazteak. “Oso pakete gaiztoa zen, nonbait bizikletan gutxi zekien”. Menderakaitza, baita motor gainean ere.

Gaurko betaurrekoak jantzita, Zelaietak Aitor eta Pedro Zubero-goitiaren *Bertan Bilbo* (Bilboko Udala, 2008) liburua zabaldu du. XX. mendeko historia ardatz duen lan horretan Bilbo eta euskara besarkatuta ageri zaizkigu; hiria eta hizkuntza estu elkartzen ari diren besoen artean, noski, Arestirenak. Bilbori euskaraz idatzi zion, kale kaletik, eta bidea urratu zuen atzetik etorri diren bilbotar euskaldunentzako. “Ez hori bakarrik. Arestik Bilbo euskalduntzen lagundu zuen, baina gehiago ere bai: euskaldun moduan eramaten dute bera ere edozein lekutara” dio Zelaietak. Iruñeko Biurdana institutuan aurtentzen poetaren omenez ospatu duten eguna ere nabarmendu du. “Edozein tokitan, une honetan, Aresti ondo sartzen da”.

Baina jakina da bilbotarra ez zela mundu guztia ados jartzen zuen pertsona —ezta nahi ere—; horregatik, bizi izan balitz noren alde lerratuko zen galdetu diogu Zelaietari: frontean, borrokan egongo litzatekeela uste du, “ez ezkutaturik, ‘literatura literatura da’ edo ‘lanean denbora asko behar dut’ esanez”. *Hierro* egunkarian argitaratu zituen artikuluak gomutatuz, kultur gaietan bere iritzia ematen ariko zela uste du; eta politikan, orduko antzera, ez zela sigla batzuen pean mugituko. “Ez dut uste” dio Zelaietak “horrelakoa zen”.

Ereindako harriak fruitua ematen du

Urteak gorabehera, Angel Zelaieta Arestiren belaunaldi berekostatat jo dezakegu.

Biografia braillez eta hainbat ekitaldi

Urteurrenarekin batera braillez irakurtzeko moduan jarri dute Arestiren biografia. ONCEko Inma Arrieta arduratu da horretaz. “Braillez irakurtzen duen jende gutxi dagoenez, saiatzen gara eurek behar duten guztia itzultzen” azaldu du. Euskaraz argitaratutako liburuen artean brailera pasa den aurreneko biografia da hau, eta euskarazko liburu batean aurreneko aldiz, irakurtzeko zulo-hutsuneak orriaren bi aldeetatik egin dizkiote. Bolumen apur bat kendu diote horrela. “Ikusten duzu tintazko liburua nolakoa den?” galdetu digu eta Zelaietarena liburuxka iruditu zaigu alboko braillezko orri mordoarekin alderatuta “bada, biografia osoa horrelako lau liburuki dira”.

Biografia mundu guztiak irakurtzeko moduan jartzeaz gainera, Arestiren jaio-tzaren 75. urteurren honetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte poetaren omenez. Urriaren 14an Bilboko Bidebarrieta liburutegian Erika Lagomak eta Uxue Alberdik bere bertsoak abestuko dituzte; Hedoi Etxartek eta Igor Estankonak berriz, poemak errezitatuko dituzte. Egun berean Larrabetzuko Hori Bai gazte-txean Gabriel Arestiren poesiaz jardungo du Koldo Izagirrek eta Joseba Tapiak haren kantuak abestuko ditu.



Inma Arrieta Arestiren biografia eskuetan.

Horregatik hurrengo sabelaldi-ko poeta batengana ere jo dugu Arestiz galdezka. *Harri eta herri*-ko poemek idazle lanetan aurreneko urratsak ematen ari zela harrapatu zuten Jose Luis Otamendi azpeitiarra. Formazio urteetan irakurritako liburua izanda “debozio bereziarekin” hartu zuen, Artzerenak, Azurmendirenak edo Miranderenak ere hartu zituen legez.

Urte batzuk joan dira hastapen haieztatik. Mundua aldatu da, poesia kanbiatu, Otamendi bera ere bai; horregatik gaur egun Arestiren poemak irakurri eta zer sentazio izan duen galdetu diogu. Ea poesia paper gaineko tinta bihurtu den, mailu bat izaten jarraitzen al duen. Bilbotarraren lanetara sariago itzuli nahi lukeela azaldu du, *Harri eta herri* berritoki esku artean hartuta “guztiz sinagaria” iruditu zaiola. Koldo Izagirrek liburuaren azken edizioari egindako hitzaurrera bideratu gaitu ondoren: han esaten denez, bizitzaren eta literaturaren arteko muga haustea lortu zuen bilbotarrak. Otamendiren ustez horretara iristen den idazle batek, beharbada eternitatea ez, baina luzaroan irauteko arriskua du. “Arestiren karga humanoak hurbilarazten zaitu; testuinguru historikoa aldatuko da, baina sakonean esaten dizuna oso erraz iristeko modukoa da”.

Arestik hurrengo belaunaldian lur gozoa aurkitu zuen bere harria ereiteko. Eta erlojuaren buelta batzuekin mugarrira jaio zen. “Zordun garbiak gara” dio Otamendik “Arestik beste Euskal Herri baterako oinarriak jartzen ditu: idazle erdaldun bat, Bilbon jaioa, ari zaigu ez den, edo bere burua denik ere ez dakien herri batekin amets egiten”.

Post-Aresti

Poetak —sortzaileak oro— ez dira hiltzen inork gogoratzen dituen bitartean. Baude-laire edo Whitman biziago daude literaturazaleen memorian azken ez-tula egin ez duten hamaika poeta baino. Aresti, ikusi dugu, belaunaldiko gogoan da, atzetik etorri zen generazioaren aitortza du. Jakitea falta

zaiguna zera da: idazlearen heriotza fisiokoaren ondotik jaiotakoek ba al dakite nor den? Zer garrantzia eman diote?

Etzeko apaletan begiratu azkarra botata arrapostua ukan dezakezu. Ariketa sinplea da: 1970 eta 1980ko hamarkadetan jaiotako euskal poeten liburuak hartu esku artean, hostokatu itzazu. Bost minutu baino lehen Arestiren erreferentziaren bat aurkitzen ez baduzu –edo horrelako ariketetarako gogo faltan bazabiltza– guk lagunduko dizugu.

Belaunaldi post-arestiarreko idazleek aldarrikapen berrietarako erabili dute hark sortutako sinbologia: etxebizitzaren arazoaz hitz egiteko erabili zuen adibidez Urtzi Urrutikoetxeak. *Auzoak*-en (Susa, 2005) gazte batzuk azaltzen dira pintadak egiten. Horietako batek honela dio: “Nire aitaren etxea defendatuko dut, ze nirea daukadanerako... Gabriel: lehen hobea zen etorkizuna”. Asmo diferenteko berrirakurketak ere egin dizkiote, batzuetan zeharka ukituz –*Jainkoa barrapatzeke tranpa* (Pamiela, 2007) liburuan Jon Gerediagak Zorroztako portuko Anton eta Gilen aipatzen dituen bezala–, besteetan motibo propio batean txertatuz –Aritz Gorro-



txategik *Zaldi bustuak* (Erein, 2007) liburuko kapitulu bati *Harrizko zaldi hau* jarri dio–; arrazoa eman dio Ignazio Aiestaranek, *Muntro abertzalea* (Elkar, 2003) liburuko *Harrijasotzaile-berrijasotzaile* poemari; Kirmen Uribe Marcel Duchampekin xakean jokatzen jarri du *Bitartean heldu eskutik* (Susa, 2001) liburuan; eta bada hil zela ukatzen (edo) duenik ere: *Gabriel Aresti bizirik da* zioen Beñat Sarasolak *Kaxa huts bat*-en (Susa, 2007), bere gaur egungo jarrera politikoaz espekulatzearekin batera. Helduleku ugari, poeta bakarrentzako.

Pentsatzekoa da jatorrizko tesuingurutik urrundu ahala Arestiren poesiaren berrinterpretazio, transformazio eta –zergatik ez– prostituzio berriak sortzen joango direla. Lekuko izango gara. Erreportaje hasieran jaiotzen ikusi dugun haurra euskal letra modernoaren aitona bihurtu da, bilobek egiten dizkioten bihurrikeriei irribarrez. Bizi ote den galdetzen genuen hasieran. Ez, Aresti ez da bizi. Guk bizi dugu. ■

www.argia.com/bideoak

helbidean, Arestiren urteurrenari buruzko bideoa.

EUSKARAREN MARATOIA 7

Korritzeko modukoa!

LASARTE-ORIAKO UDALA

Ttakun

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

www.euskararenmaratoia.com

2008ko urriaren 12a

ARGIA

29

erdiko kaiera

DANI BLANCO

KRITIKA

Poz txikiren bat eragingo zion euskaldunari Kepa Junkeraren *Etxea* diskoan hainbat erdal kantarik euskaraz abestu izanak. Artikulu hau sinatzen duenak ezin du gauza bera esan; kezka sortu dio, ez diskoak, inguruan sortzen ikusi duen dinamikak baizik. Eta ondorengo lerroetan kezka hori azaltzen saiatuko da.



Gure etxea Iberian ote den

GORKA BEREZIARTUA

ESANGO DA MUSIKAK ez daukala aberririk, hizkuntza duela (izatekotan), eta CD bikoitz honetan hasieratik bukaeraraino euskaraz abestu dutela; badela zerbait euskaraz ezagutzen ez duten artistak horrelako lan bat egitera animatzea. Esango da, eta horretan bat etorriko gara. Dena dela, lagun apatridok, barkatuko didazue disko hau “euskal musika” modura etiketatzen badut, euskaraz kantatua den neurrian.

Sailkapen horretatik abiatuta zalantzan jarri nahi nuke *Etxea* honek egin duen ekarpena –txikia nire ustez– baita trukean jaso duen hedabideen erantzuna ere –hanpatua, euskarazko beste edozein diskok ez baitu hainbesteko promoziorik izaten gurean–.

Euskal kanta herrikoiak entzungo dituzu *Etxea*-n, Junkeraren moldaketekin. Kantari bakoitzak bere ukitua eman dio: batzuk “betiko” bertsioetik hurbil daude, flamenko airea nabaritzen da beste batzuetan –Estrella Morenteren *Haurtxo txikia*-n kasu–, fado kutsua ekarri dute musikari portugaldarrek eta oro har pianoa eta gitarra dira musikaren eroaleak, soinu txikia bigarren planoan utziz. Emaitza: balekoa; irregular samarra. Pianoarekin egindako kantuek batez ere, aurretik euskal kantagintzan egin diren moldaketak ekarri dizkirate gogora. Berri gutxi. Adibidez, zalantza handiak ditut disko honetako *Oriko xoria*-ren bertsioak –Pau Donés eta Eliseo Parra kantari– egin duen ekarpenaz,

Pantxoia eta Peiok kantatutakoarekin alderatuz. Ber sentsazioa izan dut diskoko beste hainbat kantarekin ere: aldaketa txiki batzuk gorabehera, argi berririk ez etxean.

Eta zalantza (kezka) sentsazio horren atzetik dator: asmorik ere ba ote zegoen; disko hau nori zuzendua dagoen, alegia. Merkatura joan beharra dago erantzunaren bila. Edukia –euskal kantu herrikoiak, sobe- ra ezagunak euskal entzulearentzako– eta parte hartu duten abeslariak ikusita –asko gaztelaniazko musikan *mainstream* modura sailka daitezkeenak;

Iberiar penintsulako- ak ia denak; euskal- dunik ez–, pentsa- tzen jarri eta otu zait *Etxea*-ren *target* nagusia ez dela eus- karaz bizi. Erdaldun- nari euskal kultura erakargarri egiteko asmoa dagoela dis- koaren atzean. Antzeko saiakera izan zen joan den urtean Amaia Mon- terok eta Mikel Ereñxunek grabatu- tako *Lau teilatu*-ren bertsioa. Boladan dagoen joera da, Euskal Herriko euskaldun- erdaldunek kontsumi dezaketen produktua izateaz gain, penintsula osoan ere sal daite- keelako, musikari ezagun horiek gaztelania- ren kulturaren zentrotik egiten duten trak- zioa baliatuz.

Asmoa ez da txarra, euskarazko kultur ekoizpena biziko bada beha- rrezkoa izango du erdaldunak bere ingurura biltzea; baina zalantzak ditut modu honetara planteatutako lanek epe luzera fruiturik emango ote duen. Ez naiz disko honetaz ari, sor dezakeen ereduaz baizik. Arazoa Newtonek formulatu zuen aspalditxo: grabitatea, gorputz baten masak beste gorputz txikia- go batean eragiten duen erakarpen indarra. Masa handia da gaztela- niaren kultur industria; euskarare- na ez. Handiak txikia erakartzen du, indarka batzuetan, balakuz bestetan. Bigarrenaren tankera hartu diot Junkeraren azken lan honen inguruan sortu den diskurtsoari.

Mundua ez da gurea, iberiarrena ere ez ordea

Jose Saramagok *Etxea*-ren kontrazalean ida- tzitako testua duzu ondorengoan, norbaitek



INIGO AZKONA

liburuxkan indarka euskaratua: “Bada herri musikari bat, non munduko herri guztiak ordezkaturik dauden, etxe komun bat bailit- ztan. Horren guztiaren arkitekto eta igeltze- roa (sic) Kepa da”. Esaldiak ideal bat islatu nahi luke, elkarrenganako errespetu harmo- niatsuan bizi diren kulturen topalekuarena. Diskoaren edukiarekin erkatuz gezur bat eta egia bat gutxienez badaudela iradokitzaera ausartuko naiz. Gezurra: hemen ez dituzu “munduko herri guztiak” aurkituko; Iberiar penintsula aurkituko duzu asko jota, eta

parte hartu duten 42 kolaboratzaileetatik 28k (%66,6) beren ohiko hizkuntza gaztelania dute. Egia “bailitzan” horretan dago. “Etxe komun” paniberiar horretan denok ego- era berean bizi bagi- na bezala antzeztera gonbidatzen duela, alegia. “Bailitzan”... baina ez da, Sarama- gok behin eta berriz errepikatu arren paniberismoarekin denak irabazten ate- rako ginatetekeela.

Gaztelaniaren grabitazio indarrak ez du aukerarik ematen horretarako. Diskoan kolaboratu duten batzuen kutsu postkolo- nialeko adierazpenak dira lekuko. Loquillok *Deia* egunkariari honakoa bota dio: “Uste dut kolaboratzaileek maitasun handia diotela

euskarari, ez dugula bigarren mai- lako hizkuntzatzat hartzen” (*Excusa- tio non petita...*). Miguel Bosék, askoz garbiago egunkari berean, “euskara hizkuntzetan kriptikoena da” esan du. Ez dut uste ezer gehi- tu behar dudarik.

Etxe komuna eraikitzekotan fik- zioa gutxieneko baldintza baita: kultura bakoitzaren masa parekoa dela irudikatzea, alegia. Disko honen inguruko diskurtsoak ez du fikzio hori sortzea lortu. Saiatu ere ez dela egin esango nuke. Promo- zioan maila handikotzat aurkeztu diren artis- tak normalean gaztelaniaz kantatzen dute- nak dira –Ana Belén, Andrés Calamaro, Jaime Urrutia edo aipatutako Loquillo eta Bosé–. Horiek dira etxeko nagusi, behingoz eta aparteko zeremonia gisara afalorduan morroiaren hizkuntzan ari badira ere. Horrek morroiaren hizkuntzari mesede egi- ten diola? Morroiago egiten ez ote duen...

Grabitatea da arazoa: gorputz baten masak txikiagoengan eragiten duen erakarpena. Gaztelaniaren kultur industriak euskararena erakartzen du, indarka batzuetan, balakuz bestetan

Bere hizkera unibertsalizatzeko, garrantzitsua izateko, mundura zabaltzeko hipoteka ordaintzen ari dela ematen du, giltzak aspal-di eskuan ukan behar zituenean.

XXI. mende hasiera honetako fenomeno behinenetakoa ei da kultur sistemen artean gertatzen ari den integrazio prozesu erraldoia. Kultur fenomeno globalez berba egiten da etengabe –unibertsaltasuna aipatu digute disko honekin–, ahantzirik horien sustraietan beti daudela abiapuntu lokalak. Zentroak daude, beren merkatu eta *star system*-ekin; horien masaren araberakoa da erakartzeko gaitasuna. Are gehiago, zentro bakoitzak, kultura bat, mundu ikuskerara bat islatzen duen neurrian, izaera monopolistikoa du. Eta hor datza disko honi eta tankerako ekimenei ikusten diedan arazo nabarmenena: zentroa ez dagoela hemen, euskal kulturaren. Zentroa erdaren kultur industrietan dago –gaztelaniarenean batez ere–, hangoak baitira izar protagonistak, haiek ematen diote balio erantsia; ze, bestelakoan, hainbesteko marketina izango al zuen euskal kanta herrikoen bilduma batek? Euskararen periferiara egin-

dako txango homologatua da; homologatua, iberiar artistek esan dutelako orain euskarak balio duela mundurako.

Kezkatu egiten nau, heste espainiarren apendizet bihurtzen gaituen neurrian. Ez da noski adibide bakarra. Kasurako, hedabideetako langileok alimaleko garrantzia ematen diogu Espainiako sari nazionala irabazi duen euskal nobelari, momentuko film espainiarrean atara den euskal aktoreari. Han baloratu behar dute hemengoa; guk, antza, ez dakigu. Ez dakigu non daukagun zentroa, zentro izan gaitezkeenik ere.

Baina euskaldunak munduan gauden neurrian euskara *per se* globala da; ez dugu inoren eskuari helduta irten behar kanpora. Kanpokoentzat ere zimendu sendoko etxe bat eraikita baino ez gara erakargarri izango, zentroetako bat garela jakinda, izarrak inportatu ordez gureak esportatuta.

Grabitate indar handiagoa emango diguten dinamikak behar ditugu lagunok, ustez mundukoa dugun eraikin hau Iberiaren bazter auzoan geratuko ez bazaigu. *Ettxea*, tamalez, han geratuko dela uste dut. ■

Disko honen zentroa ez dago hemen, euskal kulturaren. Erdaren kultur industrietan dago, hangoak baitira izar protagonistak; haiek ematen diote balio erantsia



donostiakultura.com

UDAZKENA 2008

- Urriak 23,26** **LOLA IKUSTEN BADUZU, ESAN ABERATSA DELA**
Ados Teatroa Estreinaldia
Antzerkia • Antzoki Zaharra • (23, 21:00; 26, 20:00)
- Urriak 24** **LILI BATEN KANTOREA, Pier Paul Berzaitz**
Musika • Imanol Larzabal Aretoa (Lugaritz) • 21:00
- Urriak 25-26** **BICICLETA LERUX, Malayerba**
Antzerkia • Gazteszena (Egia) • 20:00
- Azaroak 7** **IMANOL OROITUZ**
Musika • Imanol Larzabal Aretoa (Lugaritz) • 21:00
- Azaroak 11** **MATTHEW HERBERT BIG BAND**
Musika • Victoria Eugenia • 20:30
- Azaroak 14** **EMILY JANE WHITE + ANTÒNIA FONT**
Musika • Victoria Eugenia • 20:30
- Azaroak 22** **YO COCINO Y ÉL FRIEGA LOS PLATOS**
Centro de Artes Escénicas de Sevilla
Dantza • Gazteszena (Egia) • 20:00
- Azaroak 22-23** **FUTUROS DIFUNTOS, Producciones Teatrales Contemporáneas**
Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00
- Azaroak 28** **DONOSTIA BERTSOTAN**
Bertsok • Imanol Larzabal Aretoa (Lugaritz) • 22:30
- Azaroak 29-30** **SONATA DE OTOÑO, Pentación**
Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00
- Abenduak 12-13** **EL BURLADOR DE SEVILLA, Pentación**
Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00
- Abenduak 13** **V-H-L, Centre Choréographique National de Grenoble**
Dantza • Gazteszena (Egia) • 20:00

erdiko kaiera

Musika

Jimi Hendrix, Janis Joplin, Jim Morrison eta Kurt Cobain: 27en kluba. Rockak martiriak behar zituen eta 27 urte baino ez zituztela segadun agurea bidean gurutzatu zitzaien. Oraindik bizi direnentz galdetzen dute askok; eta edozein ekoizleren hortzak izerditan hasten dira euren diskoen berrargitalpen eta edizio berezietz hitz egitean. 2009an argitaratzekoa den *The 27s: the greatest myth of Rock & Roll* liburuak mitoa puzean lagunduko du.

G.B.




Rockaren historian sartu 27 urterekin hilda

GORKA BEREZIARTUA

1994KO APIRILAREN 5EAN Kurt Cobainen gorpuaren ondoan paper batean eskuz idatzitako hitzek laburbiltzen dute hoberen 27en klubaren espiritua: "Hobe da sutan kiskaltzea, zimeltzea baino". Neil Youngen abesti batetik hartuak ziren; Morrisonek, Joplinek edo Hendrixek ere sinatzeko modukoak dira. Amets egin zuten betirako biziko zirela; biharamunean hiltzeko moduko bizitza izan zuten. 27 urteena da rockaren munduko Bermudetako Triangelua;

gitarra ozenen kulturak sortu duen ipuin handiena beharbada; eta ez dago aipatutako lau pertsonaiekin bakarrik kontatu beharrik, hain ezagunak izan ez arren asko joan baitziren hilotzen auzora 28 bete gabe. Horien guztien gorazarrez idatzitako liburua osatu du Eric Segalstad kazetariak, Josh Hunterren ilustrazioek lagundurik.

Mitoez indartzeko egindako saiakera izango da, 27 urterekin zendutako artista ezagunen heriotzak kontatzeaz gain, hain-



besteko sona lortu ez zuten hainbat musikari gogora ekarriko dituen. Eta noski, heriotza horien misterioaz baliatuz salmenta erraldoiak izaten saiatuko dira editoreak.

Erabat argitu gabeko arrazoiengatik hil baitziren klubeko gehienak. Suizidio itxura hartzen duten balizko hilketak dira batzuk; era misteriotsuan desagertutakoak bestetzuk. Eta horien inguruan hipotesi sinesgaitzenak egin izan dituzte, batzuetan heriotza ukatzeraino iritsiz. Ukatu ezin dena zera da: *27en klubeko* kideen talentua euren adina baino askoz ere handiagoa zela.

27 urterekin hil, gorpua polita utzi

Albistearekin esnatzen da eguna: hilda aurkitu dute. 1970ean birritan errepikatu zen gertaera, oso tarte laburrean gainera. 27 urteen mitoa orduan sortu zela esan liteke. Jimi Hendrixen gorpua irailaren 18an aurkitu zuten Londresko Samarkand hoteleko gela batean. Aurreko gauean lo egiteko pilulak eta ardo gorria nahastuta koktel hilgarria eskaini zion bere buruari. Hazita doan ibaia legez botaka hasi zen, eta bere zuku gastrikoetan ito.

Handik 15 egunera azken aldiz ikusi zuten Janis Joplin bizirik Hollywoodeko Sunset Sound grabazio estudioan; urriak 3 zituen. Hurrengo egunean abesti bateko ahotsa grabatu behar zuen eta, agertzen ez

Ezker-eskuin Janis Joplin eta Jimi Hendrix. Biak 1970ean hil ziren, 16 eguneko tartearekin, eta biek zituzten 27 urte azken hata emateko orduan. Beraien diskoen hilondoko edizioak negozio biribila dira diskoetxeentzat.

zenez, bila joan zitzaizkion Landmark Motor hotelera. Lurrean zetzan heroina gaindosiak akabatua.

Urtea joan gabe esnatu zen berriz heriotza Parisen. 1971ko uztailak 3. The Doors taldearen kantuei ahotsa jarri zien Jim Morrison izan zen orduko biktima. Baina uztailaren aurkitu zuten gorpua, baina autopsiarik egin ez ziotenez, asko dira heriotzaren inguruan eraiki diren teoriak: heroina azaltzen da, noski, lehenengo postuetan; baita hilketaren ere; eta gezurrezko heriotza zela ere aipatu zuten *No one here gets out alive* izeneko biografian, nahiz eta Morrison hil zen gauaren inguruko testigantza berriek hipotesia apurka baztertu egin duten.

Klubeko laugarren kidea bi hamarkada beranduago egin zen bazkide. Nirvana taldeko abeslari eta gitarra jotzailea zen Kurt Cobain 1994ko apirilean, Seattleko bere etxean burutik bala bat pasa zitzaionean. Armari nork sakatu zion, bere buruaz beste egin zuenentz, horra mila aldiz errepikatu den galdera.

27 urterekin hil, negozioa egin dezaten

Erantzuna aurkitzea ezinezkoa da Cobainen kasuan. Hamaika dira kontrajarritako bertsioak, eta azkenerako zalantzan jartzen dena "ikerketa" horien guztien helburua da. Datu batzuk ematearren, hamalau urte baino ez dira igaro Nirvana taldeko abeslaria hil zenetik eta dagoeneko hogeita bi biografia argitaratu dituzte. Azkena, aurten bertan publikatutako Charles Cross kazetariaren *Cobain unseen*, argigarria da benetan: ez heriotzaz datu berriak ematen dituelako, Crossek berak 2001ean beste biografia bat idatzi zuelako baizik. Gertakaria berriro lar-



daskatu, asko ez bada ere; beti egongo da norbait liburua erosteko prest.

Eta biografiak bakarrik balira... Cobainen heriotzarekin egin duten *merchandisinga* eskandaluzkoa da: Nick Broomfield-ek *Kurt & Courtney* film dokumentala egin zuen, Gus Van Santek azken egunak fikzionatu zituen *Last days* pelikulan; 2002an Riverhead Books argitaletxeak abeslariaren eskuizkribu eta marrazki batzuk publikatu zituen *Journals* izeneko liburuan.

Bakarra balitz gaitzerdi: Jimi Hendrixek disko gehiago argitaratu ditu hil ondoren, bizi zenean baino. Guztira 24 dira Stratocasterren jeinuak 1970etik argitaratu dituen lanak, estudiokoak eta zuzenekoak batuta. Bildumek beste kontaketa bat merezi dute: 27 dira dagoeneko. Sortuko dira berriak.

Iaz argitaratu zen azken konpilazioarekin hamalau dira Janis Joplinen "omenez" diskoetxeek atera dituzten bildumak. Kopuru bera Jim Morrisonen The Doors taldearen kolezioek ere. A zer produzitze-ko gaitasuna hildakoena.

Ezkerrean Kurt Cobain eta eskuinean Jim Morrison. Hil zirenean adinkide izateaz gain, bien heriotzen arrazoiak erabat argitu gabe daude oraindik.

27 urterekin hil, zahartzea okerragoa da

"Hobe da sutan kiskaltzea, zimeltzea baino". Ironikoa da. Esaldia oso erabilgarria da musikaren industriako edozein buruk bere artistei esateko. Diskoetxe handientzat errentagarriagoak dira gazte hildako musikariak, ibilbide luzea dutenak baino. Negozio hobea da 27en klubeko kantuar berrargitaratzeko eskubidea edukitzea rockaren dinosauroen disko berriak editatzea baino. Azken finean, nork erosi du Paul McCartneyren azkena? Ez dago haize berririk harengan, The Beatles taldearen zimurrak besterik ez. Errautsek ezin dute distirarik egin; odolak berriz, beti islatzen du argi printzaren bat. ■

gure!
 artean!
 euskaraz





Bizkaito Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Literatura


Honela idatzi zuten Depresio Handia

Poltsa eta bizia, biak joan ziren pikutara halako batean. New Yorkek ez zeukan guardasolik burtsako artekarien zaparradaz babesteko. Ehunka, milaka langabe kalean zer suma eta Depresio Handiak pilularik ez; mende laurden beharko zen buruko min hura arintzeko. Bitartean, AEBetako literaturak goia jo zuen, herritarren bizimodu lakarra kontatuz.

GORKA BEREZIARTUA

EKONOMIARI TRISTURA HANDIENA sartzen zaionean ez da salbatzen inor; ez da salbatzen ezer. Ezta kultura ere. Arteen industriek, mundu osoak bezala, dar-dar egin zuten Wall Streetek 29an bere buruaz beste egin zuenean. Nork kontatu eta kantatu

DOROTHEA LANGE



Dorothea Lange argazkilaria *Migrant mother* (Ama migratzailea) lana da ondokoa, Kalifornian ateratakoa. AEBen barrualdean bizi zen jende askok jo zuen mendebaldera lan bila 1929ko hondamendi ekonomikoaren ondoren. John Steinbeckek, besteak beste, fenomeno horren inguruan idatzi zuen *The grapes of wrath* (Suminaren mahatsak) nobelana.

behar zituen AEBen pena berriak? Posible ote zen artea, halako desastrearen ondoren? Zer egin?

Kezkatu ez behintzat. Lasai: idazlea kontsumo baxuko sortzailea da. Ez ditu beste munduko baliabideak behar –idazmakina, kaferen bat edo beste, menu merkeagoa bazkaltzeko ere prest legoke, eskatuz gero–; soldata txikiarekin konformatzen da normalean; papera kopiatzea ez da zeluloidea kopiatzea bezain karioa; eta behin norbaiten etxera iritsi denean, literatur lana bizi osorako han egongo da, apalak dekoratzen, mahai herrenari egonean laguntzen; beti zain, gurasoek noiz irakurriko; berdin seme-alabek edo kuxkuxean dabilen adiskideren batek. Horregatik ez da behin ere desagertuko literatura: hain da merkea, hainbeste ematen dizu ia doan...

Baina klaro, horrek bakarrik ez du esplikatzen 1930eko hamarkadan ingelesezko literaturan gertatu zena: irakurleen eskuetara burtsa bezain azkar hasi ziren erortzen maisulanak. XX. mendeko klasiko ugari ikusi zuten argia hamar urte horietan. Eta aurreko urteetan ez bezala, gizarte gatazkak bilakatu ziren literaturaren gai zentral.

Mahatsek eskuma sumindu zuten

“Pentsatu lanpostua eskaini behar diozula norbaiti, eta gizon bakarra etortzen zaizula lan eske. Eskatzen duena ordaindu beharko diozu. Baina imajinatu ehun gizon daudela, eta ehunek nahi dutela lanpostua. Imajinatu haurrak dituztela, eta haur horiek

DOROTHEA LANGE

goseak daudela. Demagun hamar zentimoko txanponarekin haur horientzat ahia erosten ahal dutela. Hamar zentimo bakarrik eskaini, eta lanpostua eskuratzeko elkar hilko dute". John Steinbeckek 1939an argitaratu zuen *The grapes of wrath* (Suminaren mahatsak), burtsaren katastrofea gertatu eta hamar urtera. AEBetan langabezia %15ekoa zen oraindik.

Tom Joad, kartzelatik atera berri, etxera buelta egiten ari da Jim Casy lagun duela. Oinez-oinez iritsi da haurtzaroko baserrira eta mundua gainera etorri zaio: hutsik dago etxea, gogoratzen zuen ezeren arrastorik ez. Ingu-ruan bila hasi da Joad, osabarekin topo egin arte. Haren familia ere, etxea bizkarrean hartuta alde egitekotan da. Uzta galdu egin da eta esperantza bakarra Kalifornian dago: eskuorri asko banatu dituzte, hara joanda jornal ona izango dutela aginduz. Bidera aterata ordea, norabide



White angel breadline (Aingeru zuria janaria doan hartzeko ilaran), Dorothea Langeren argazkia.

berean doazen ehunka familia daudela ikusiko dute. Eta Kaliforniara iritsita, tragedia; ezin gutxienekoa eskuratu: etxerik eta lan finkorik ez. Grebak berriz, nahi adina. Eta, beste aldetik, eskirol izateko gonbiteak. Ez dugu nobelaren bukaera kontatuko, ez dago beharrik.

AEBetako literaturaren gailurrean jarri zen Steinbeck *The grapes of wrath* argitaratzearekin batera. Istorioaren eduki soziala ikusita komunistatzat jo zuten herrialdeko sektore eskuindarrek; zenbait herritarrek jendaurrean erre zuten liburua; irratiko eztabaida politikoetan bolo-bolo ibili zen; eta, batez ere, jendeak irakurri egin zuen. Mingain gaiztoenak isildu ziren, Steinbeckek Pulitzer eta Nobel Saria eskuratu zituenean.

Bada anekdota bitxi bat, Kaliforniako Nekazarien Elkarteak liburuaren kontra egin zuen erasoarekin lotua. Nobelan kontatutakoa "gezur pila" zela esan zuten

bota

abenduaren 7an

Getxon

Santa Eugenia Plazan, 17:30ean

ERDU METROAN

Bizkaiko bertsolari txapelketa 2008

Xabi Paia

Etxahun Lekue

Igor Elorza

Unai Iturriaga

Eñaut Intxaurreaga

Gorka Ostolaza

Gaijartzailea:
Zuriñe Iarritu

www.botasarean.biz



John eta John: Dos Passos eta Steinbeck, 1930eko hamarkadan AEBetako literaturan goia jo zuten bi idazle. Dos Passosek ezkerretik eskuinerako bidea hartu zuen urteek aurrera egin ahala, 1950etan Joseph McCarthy eskuin muturreko senatariaren jarraitzaile bihurtu arte. Dena dela, 30eko urteetan idatzi zuen "AEBetako trilogia" garaiaren ispilu ezinhobea da. Ber gauza esan liteke Steinbecken urte haietako obraz ere. *The grapes of wrath* nobelak publikatu zenetik zeresana sortu zuen zirkuitu literario-etatik harago.

elkarte horretako kideek. Beraien ustez, puztuak ziren Steinbecken nobelako nekazarien baldintza negargarriak, baita kaliforniarren xenofobia agertzen zuten pasarteak ere. Idazleak ordea, ondo ezagutzen zituen laborarien baldintzak. Horregatik nobela idaztean leundu egin zituen, berez gordinagoak –eta sinesgaitzagoak– ziren kondizioak, sinesgarritasunaren mesedetan; bazekien egia askoz okerragoa zela. Eta hala ere propagandista esan zioten.

Hamarkada Gorriko manifestua: Kultura eta krisia

Ez zen Steinbeck bakarria izan: ehunka idazle, intelektual eta artistari leporatu zioten komunista izatea 1930etako AEBetan. Hasiak ziren suak pizten; II. Mundu

Orain, depresio ekonomiko berriaren zurrumurrua ozentzen ari delarik, ez legoke gaizki erloju mundialaren "krak!" hotsa gertutik entzun zuten idazle hauei hautsa kentzea

Gerrak bolada baterako apalduko zituen, baina bi hamarkada geroago Joseph McCarthy senatariak sorgin ehizari ekingo zion.

Eta egia da, baziren alderdi komunistaren aldeko idazleak 1930etako AEBetan. Are, herrialdeko kultur bizimoduan eragin nabarmena izan zuten. Askok gainbehera ekonomikoaren ondorioz hartu zuten ezkerbidea; lehenagotik ere kausarekin engaiatuak ziren beste batzuk, Sacco eta Vanzetti anarkisten exekuzioen aurka 1927an protestetan ibili zirelako.

1932an horietako asko elkartu egin ziren, hamarkadaren kolore gorria markatuko zuen manifestua sinatzeko: *Culture and the Crisis* (Kultura eta krisia). Azkar esateko, panfletoak AEBetako alderdi komunistaren programari babesa

eskaintzen zion, herritarrek presidentea aukeratu behar zuten urtearekin bat eginez. Eta sinatzaileak ez ziren edozein: John Dos Passos, Sherwood Anderson edo Langston Hughes ezagunak egingo zaizkio literatura iparamerikarra ezagutzen duen edonori.

Graham Barnfield pentsalari marxistaren ustez, manifestuaren publikazioa gertaera esanguratsua izan zen, eta ez papelean idatzi zutenarengatik bakarrik. Testuinguru zabala goa hartuta, AEBetako Hamarkada Gorriaren adierazle da. "AEBetako onenek, distiratsuenek programa komunistari babesa adierazi izanak, ezinegon sakona eragin zuen herrialdeko eliteetan" dio Barnfieldek.

Eskuinera erori zen Dos Passos

Manifestua sinatu baino lehenago, 1930. urtearekin, John Dos Passosek *The 42nd parallel* (42. paraleloa) nobela argitaratu zuen. "AEBetako trilogia"-ko lehenbizikoa izan zen. Hiru liburu horiek dira Chicagoko idazlearen lanik esanguratsuenak, *Manhattan transfer* nobelarekin batera.

Nobelotan erabilitako teknika berritzaileak gorabehera, Dos Passosen ikuspuntu politikoa interesatzen zaigu erreportaje honetarako. Industrial Workers of the World (IWW) erakundearen aldeko jarrera nabarmena adierazi zuen idazleak lan osoan; AEBetako alderdi komunistarekin hotzago agertu zen —nahiz eta komunista batzuk sinpatiaz deskribatzen dituen—; eta, batez ere, mendearen lehen hereneko borroka sozial eta politiko garrantzitsuenak ezkerretik erretratatu zituen. Woodrow Wilson presidentek I. Mundu Gerraren ondoren nazioartean txaloak jasotzen zituelarik, Dos Passosek aurpegia zikindu zion, haren manupean ezkerreko taldeen aurka antolatutako oldarra salatu zuenean.


AMAGOIA I ETXEKAR

moda mujer
y joyas de autor

www.amagoiaietxekar.com

943 33 61 70

Denborak dena aldatzen du, baina; trilogiaren azken libururako hasi ziren idazlearen mainak: Dos Passosek hiru obren proiektua ezkerretik abiatu bazuen ere, sabelean hazten ari zitzaion harra. Aldaketa soziala desira hutsa bihurtuko da kontakizunak aurrera egin ahala, lortu ezinezko helmuga. Pertsonaien bilakaera ikustea besterik ez dago: hil egingo dira batzuk, zahartu eta asmo iraultzaileak baztertuko dituzte bestetzuk... Horra non zegoen idazlea bera; "AEBetako trilogia" bukatzerako komunismoaren teoriari eztenka ari zen hainbat artikulutan. Eskuinerantz hasi bazen, hasi zen: 1950eko hamarkadan Joseph McCarthyren —berriro atera zaigu bidera!— jarraitzaile bihurtu zen.



Eskuineko aldetik lurrera jausi zenean, amets batetik nola, halaxe esnatu zen John Dos Passos; berriro ohera sartu zen; lo egin zuen, baina ametsik ez.

Nobela beltza ez zuen haizeak eraman

Nobela beltz handien hamarkada ere izan zen 1930ekoa: 1939an publikatu zen Raymond Chandlerren *The big sleep*, 1995ean Igela argitaletxean *Betiko loa* titulupean Iñaki Ibañezek euskaratua; 1934koa da James M. Cainen *The postman always rings twice*, hau ere Igelan ateratakoa, Xabier Olarrak euskaratua *Postariak bi aldiz deitzen du beti* izenburuarekin. Generoaren bi maisulan, ezbairik gabe.

Langabea 1930eko hamarkadan. Bizkarrean daraman afixak dio: "Hiru ofizio dakizkit; hiru hizkuntza hitz egiten ditut; hiru urtez borrokatua; hiru ume; eta lanik ez hiru hilabeteetan. Baina lanpostu bakarra nahi dut".

Distopien eremuan, Aldous Huxley ingelesaren *Brave new world* —Xabier Amurizak *Bai mundu berria* itzuli zuen— 1932koa da; William Faulknerrek *As I lay dying* (Hilzorion nagoe-la) eta *Absalom! Absalom!* publikatu zituen 1930 eta 1936an hurrenez hurren; ezin ahaztu Margareth Mitchellen *Gone with the wind* (Haizeak eramana) nobela ere, 1937ko Pulitzer saria. Ondorengo zinemarako egokitzapenarekin izugarri famatu egin zen AEBetako hegoaldean girotutako istorioa.

Zerrenda *ad infinitum* luza genezake, baina ideia garbi geratzen denez, ez dugu elkar aspertuko. Depresio ekonomikoak goitik behera astindu zuen AEBetako literatura. Idazleek begirakunea aldatu zuten, poltsikorik behar ez zuten gizon-

emakumeak ikusteko. Helburua: hamarkadaren *zeitgeista* harrapatzea. Denbora gutxian Francis Scott Fitzgeralden *Gatsby Handia* dirurik gabe geratu zen. Akabo aberaskeriak. Txikiak ziren protagonista berriak, zikin pobreak, mundua bera ere halakoa baitzen.

Orain, depresio ekonomiko berriaren zurrumurrua ozentzen ari delarik, ez lego-ke gaizki erloju mundialaren "krak!" hotsa gertutik entzun zuten idazle hauei hautsa kentzea, gainera etor daitekeena ikasten hasteko baino ez bada ere. Steinbeck, Dos Passos... Inoizko ekonomia liburu ulergarrienak idatzi zituzten, beharbada. ■

<p>Zoaz infernura, laztana Anjel Lertxundi Eleberria</p>	<p>Azken anaia Nathacha Appanah Eleberria</p>	<p>Euskaldun guztion aberria Iban Zaldúa Eleberria</p>	<p>Ele zahar, ele berri Martin Anso Elezaharrak</p>
<p>ALBERDANIA</p>	<p>T (Tragediaren poza) Juanjo Olasagarre Eleberria</p>	<p>Violet Park-en bidetik Jenny Valentine Eleberria</p>	<p>Istripuak Agustin Arrieta Urtizbera Narrazioak</p>

Kronika

“Laboa hil da” kantatu zuten kazetek

Astelehena euritan. Putzuetan saltoka erredakziora sartu, eta notizia: Mikel Laboa hil dela. Abendua hasi da eta leku guztietan ari du albiste bera. Egunak aurrera egingo du jasa gelditu gabe: lagunak, adierazpenak, doluminak. Negar ekaitza biharamuneko kazetek ere. Hil zaigu ahotsa. Eta kontatu egin dute kazetariak: honela.

GORKA BEREZIARTUA

NOIZBAIT, BIDAIAAREN BATERA JOANDA non-goaren zaren galdetuta, elkarrizketa beste bide batetik eraman eta Donostiako kantari baten izena eman zenion jakin-minez begiratzen zizun pertsonari. Gustatzen zaizulako haren musika, ados. Geografia, historia eta politika lezio aspergarriak ez emateagatik, ados. Baina ez horregatik bakarrik, ezta? Mikel Laboa aspaldidanik zen kantaria baino gehiago zuretzat. Haren ahotsen kabitzen zen zeure herriaz politetik esateko zenuen guztia. Eta joan den astelehenean hil zenean, pentsatu zenuen ez zutela lan makala kazetariak, ahots horren historiak kontatzen, ohi-kerian erori gabe.

Biharamunean, periodikoak zabaldu ere ez dituzu egin behar Mikel Laboa nonahi ikusten hasteko. Eskura daukazun 11 egunkaritatik 8tan azaleko argazki nagusia eman diote. “Amets betezko loan”, “Agur, Mikel”, “*Se apagó la voz de Laboa*”, “*Le père de la chanson basque contemporaine est mort*”, “Txoriaren azken hegaldia”...



ALBERTO ELOSEGI

Txori asko titularretan

Barruko orrialdeetan ere, txoriak pausatu dira erdarazko artikuluen titularretan: “*El vuelo final de un pájaro libre*” *El Diario Vasco* artikulua nagusian eta “*El señor de los pájaros*” Álvaro Bermejoren zutabea; “*Se ha ido volando, libre, como un pájaro*” Noticias taldeko egunkarietako zutabea Andrés Porterok.

Laboaren errepertorioko kanta ezagunena izango da *Txoria txori* beharbada, eta, alde horretatik, klixea iruditu zaizu titulatzeko modu hori. Hizkuntzak zerikusia izango duela otu zaizu gero, ze, euskaraz irakurri dituzun kroniketan –kasu, *Berriaten* gehigarri berezian eta *Gara* zabaltzen duen artikuluan– bestela formulatu dituzte izenburu guztiak.

Txoriak buruan dituzula, askok abestia bakeari eskainitako kantatzat jo izan dutela etorri zaizu; beste askorentzat askatasun ideia abstraktu samarra, eta, oroz gain, “jasangarria” islatzen duela. Urteen poderioz kantaren esanahia edukiz hustu dutelakoan zaude. Orduan oroitu zara, Mikel Laboak azken diskoan ere hitz egiten zuela txoriez –*Xoriek 17* izena zuen diskoak berak–, zenbait kazetek erabilitako moldeaz bestela, ordea.

Har dezagun *Xoriak* (*xorien ibesa*) izeneko kantua, Joseba Sarrionandiaren letrekin: “Zuen begiak, eta zuen etxeetako leihoak, / eta zuen eskuak zabaltzen dizkiezue. / Xoriak laudatu egiten dituzue, / lausengu lirikoak ere dedikatzen dizkiezue. / Baina xoriak zuengandik beti ihesi doaz”.

Txori berriok, 2005ean argitaratu ziren lanekoak, alde egin nahi zuten politikoki politaren diskurtsoetik.

Beilatokiko kronika

Biografia, kronologia, diskografia betean egunkariak. Beilatokian egindako adierazpenek deitu dute zure arreta. Xabier Leteren eta Bernardo Atxagaren arteko besarkada ikusi duzu orri askotan. Argazki historikoa. Astelehenean, oinez ez bada, telebistaz, mundu guztiak egin du ostera Errekaldetik.

Nonbait irakurria duzu horrelako egunetako lanak miserable sentiarazten duela kazetaria: senideen eta lagunren malkoak saihestuz egin behar dira galderak; sufrimendua handia

**Ez legoke gaizki gaur
Mikel Laboaren lana
txalotzen dutenetako
askok, bihar, bide
berrien bila dabiltzan
beste artistak ere
babestea**

da, negarrez ari dira denak, eta zuk, grabagai-lua eskuan, zerbait esateko eskatzen diezu.

Eta prentsa idatzian lan egiten duenarentzat zailena gero dator. Astearte goizerako entzunik dituzu Laboaren lagunek esandako guztiak, beste zerbait eskaini behar du jurnalistak. Ikusitakoa, beilatokiko giroaren itoa sentitu behar du irakurleak asteartean, orrialdea pasako ez badu. “Zuhaitzak, hostoak galtzen. Neguaren iragarpen. Burdinazko zeru grisa. Euri jario. Jendearen bisaia eta eguraldia bat zetozen atzo. Triste zeuden. Ehunka lagun hurreratu zen Mikel Laboa musikariari azken agurra ematera, Errekaldeko beilatokira, Donostiara. Serio, burumakur. Distira begietan. Gaur goizean erraustuko dute, 11:15 alde-ra”. *Berrian* Idoia Etxeberrriak idatzitako kronikan beste egunkarietan aurkitu ez duzun ahalegin estetikoak sumatu duzu. “Beroki handiekin, gehienak beltzak, iristen ziren bisitariak, kanpotik eta barrutik hoztuta” (...) “Bi emakume irten ziren, malkoak begietan; batek eguzkitako betaurrekoak jantzi zituen”. Nabarduraren garrantzia, momentua harrapatzea, prestatzea, zerbitzatzea: kazetariaren arrakasta. Kronika hori gorde egingo duzu.

Distantzia denak ez dira metrotan neurtzen

Bai ordea, kazetaritzaz ari garela, informazioaren kokapenean, iturrian, trataeran. Hor bilatu behar neurria. Eguneroko guztiak ez diote leku bera eman Mikel Laboaren heriotzari. 12 orrialde eskaini dizkio *Berriak*, 10 *Garak*, 7 *El Diario Vasco*, 6 *Deiak*, 6 *Noticias de Gipuzkoak*...

Espainiako prentsak ere landu du gaia: *El País*ek lau zutabeko hil-oharra publikatu du, Felipe Juaristik sinatua; *El Mundok* bi orrialde eskaini dizkio Hego Euskal Herriko edizioan: Xabier Garmendiak idatzia bata, Aitzol San Sebastiánnek bestea; *Públicok* kultura saila zabaldu du berriarekin. Frantziako prentsan aldiz, txintik ez,



Sud Onestek salbu, eta hark ere... 20 lerro inguruko albisteak dio *Hegoak* kantuaeren egile zela donostiarra. *Txorria txoriz* ari da, noski.

Edonola, zu *Diario de Navarra* harritu zaitu –edo, hobe, ez gehiegi–. Hiru zutabe eta Joan Bautista Humet abeslari valentziarraren heriotzaren berriarekin lehian, ezkerreko orri berean. Efe agentziaren teletipoa moldatuta jarri dute.

Iruñea Laboaren jaioterritik 81 kilometrora dago; Valentzia 487ra. Iruñean ikasi zuen Mikel Laboak 1955etik aurrera. Iruñean egin ere lehenengo emanaldia, Gaiarre antzokian duela 50 urte. Ia 60.000 nafarrek hitz egiten duten hizkuntza batean abesten zuen. A, eta hori gutxi balitz, joan den ostegunean *Garan Tomás Urzainqui* historialariak publikatu zuen bezala, familia nafar zaharrekoa zen, Urrotzekoa. Gutxi inporta du horrek prentsa nafarraren dekanarentzat. Gauza jakina da distantzia guztiak ez direla metrotan neurtzen.

Ez dago erraz

Irakurtzea merezi duen zerbait eskaintzen hurrengo egunerako. Zer esango duzu, abangoardiako musikaria izan zela? Sinpatikoa iruditzen zitzaizula? Anekdotak txatxu bat kontatu duzu hiru paragrafotan ARGIA.COM-erako, eta hurrengo asterako artikulua hau prestatzen hasi zara. Zaila da gero, Laboa definitzen. Egunotan publikatu diren artikulua saiatu dira musikariaren ahalik eta argazki osoena ematen, heriotza bera, gertakaria, deskuidatu gabe. Hitz egin da belaunaldien artean egin zuen zubi-lanaz; aipatu da herri kantak berreskuratu zituela, poetak musikatu, *Leketitioak* egiten esperimentatu zuela. Egunean esan zitezkeen guztiak, zuri gainean beltz, argitaratuta daude, hemerrotekako materiala dira astebete beranduago.

Zuri gomendio bat egitea geratzen zaizu: *Bat-Hiru* (Herri Gogoa-Edigsa, 1974) diskoa. Mikel Laboaren kanta famatuena baino ezagutzen ez dituenarentzat, hor batzuk aurkituko ditu; gehiago nahi duenak proposamen harrigarri konplikatu batzuk ere bai: *Zaude lasai* gaur egungo post-rock talde batek sinatzeko modukoa da, *Bedeinkatua* irrigarria da oraindik, *Pasaiako herritik* Xenpelarren bertso batzuen berreskuratzea baino askoz gehiago da, Laboak eman zion jazz ukituari esker. Eta gitarra psikodelikoak, eta *Bereterretxen kanthoriako* moldaketa atmosferikoak, eta langileez, zapalketaz, amaz idatzitako letra gordin eleganteak.

Berarenak bezalako postura arriskutsuekin egin du aurrera euskal musikak. Ez legoke gaizki gaur Mikel Laboaren lana txalotzen dutenetako askok, bihar, bide berrien bila dabiltzan beste artistak ere babestea. ■

hotela
Atxaspi

Bittiria kalea 24
31770 LESAKA
Tel.: 948 637 53
www.atxaspi.com

Bloga daukat, hain zaharra al naiz?

Konturatzerako zahartu egiten zara: 2004 inguruan bloga sortu zenuen, munduan zegoen gauzarik modernoena zelakoan: deitu zioten bitartekorik gabeko kazetaritza; hitz egin zen benetako informazio askatasunaz; eta zu, gorantz begira, utopia hori gertuago zegoelako ustean. Baina pasa dira bost urte, Wired aldizkarian Paul Boutinek idatzitako artikulua bat irakurri eta, kamarada, gauzak nola aldatzen diren ikusi duzu.

GORKA BEREZIARTUA

“ZEURE BLOGA IDAZTEN hasi behar al duzu? –dio artikuluaaren hasierak– Hona lagun baten aholkua: ez egin. Eta honezkero bloga baldin badaukazu, kendu entxufea”.

Orain Twitter, Facebook eta antzekoen garaia bizi dugu, sare sozialen aroa, Interneteko azken zurrumbilo eroa; eta, Boutinek dioenez, blogek berrikuntzaren treneko txartela galdu dute. Zergatik?

Lehen geltokia: dirua

“Blogosfera, behinola norbere adierazpenen eta pentsamendu argien oasi fresko izandakoa, ordaindutako gauzen tsunami batek ito du”. Blogetan espezializatutako Technorati bilatzailearen Top 100ean geroz eta gutxiago dira blog pertsonalak; ezin dute lehiatu, egunean 30 artikulua idazten dituzten blogari profesionalen aurrean.

Bigarren geltokia: multimedia

Blogen arrakasta zor zaio testuak publikatzea erraztu izanari, ordenagailuko pantailan borragoma erabiltzen zuenak ere bere gunea erraz sortzeraino. Baina orain, banda zabalera handiagoekin, multimedia edukiak sareratzea edonoren esku dago; eta argazkiak, bideoak eta audioa hobeto egokitzen dira, Boutinen esanetan, Flickr, YouTube edo Facebook-era. Oroitzen kanta? Bideoak hil zuen blog izarra.

Hirugarren geltokia: testuak, fite!

2007ko maiatzean Twitter genuen hizpide astekari honetan. Urtebete zeraman martxan


eta askok mikroblog bat zer zen deskubritu genuen: gehienez 140 karaktereko mezuz idatzita itxurazko zerbait egin ote zitekeen galdeztzen genion geure buruari. Bada, bi urte beranduago, baietz erantzun dezakegu: testu bidezko komunikazioa azkartu du. Ohiko blogetan baino lasterrago dabil informazioa mikroblogetan. Euskal Herrian ere komunitate aktiboa sortu da, Txioika.net bisitatuta ikus daitekeenez. “Eta Twitterreko mezuak momentuan bilatu daitezke, Googlek indexatu ditzan itxaron gabe” gehitu digu Boutinek.

Azken geltokia ote?

Wiredeko artikulua hasi bezala bukatzen da: “Hil ezazu zure bloga” dio; 2004a pasa zela; ea Facebooken elkar ikusiko dugun.

Eta pentsatzen duzu sareko guruei horrelako *boutadeak* botatzea gustatzen zaiela, alajaina. Internet erabiltzen hasi zinenetik entzun duzu: e-posta kalitu behar zuen Messenger-ak; eta e-posta erabiltzen jarraitzen duzu –lehen baino gehiago–. Bloggek prentsa akabatu behar zuten; eta prentsan ari zara lanean.

Bai, beharbada zahartu egin zara. Blogak ez dira Interneteko azken moda. Baina, nahi bezain labur idatz dezakezu blogean ere –ikus, bestela, Slashdot.org bezalako webgune erreferentzialak–; multimedia edukiak erraz txertatu ditzakezu; eta kapitalaren lurriak ez ditu blogari guztiak limurtu. Ez gaitez erremintekin itsutu; ea zerbait interesgarria sareratzen dugun. ■



“Inork ez du zure blog inozo hori irakurtzen” dio argazkiko kamisetak. Interneten salgai dago, www.zazzle.com gunean. Baina, egia ote da? Benetan iritsi ote da blogentzako azken geltokia?

Koldo Izagirre

«Idaztea bigarren mailako bihurtu da prentsan»

Urtarrilaren 29an, 18:30ean, hitzaldia eskainiko du Koldo Izagirrek Hernaniko Milagrosa kaperan, euskal prentsaren historiaz. ARGIAren 90. urteurrenaren kariaz, eta Hernaniko Kronikaren laguntzarekin antolatutako ekitaldia izango da. Aurretik Izagirrerekin hitz egin dugu; gaiak ugari, erantzunak askotarikoak. Egungo prentsa “neutroa” dela uste du, “geza”. Zenbat gatz bota, eta nola? Ez dago errezeta magikorik ondorengo lerroetan. Osagai batzuk, bai.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

Hasteko, azken 90 urteetan euskal kazetarien estiloak izan dituen aldaketa garrantzitsuenak nabarmentzeko eskatuko nizuke. Zertan egin dugu aurrera? Eta atzera?

Fase asko izan ditu kazetaritzak, baina beti izan da, bateko edo besteko, ideia politiko jakin batzuen defendatzaile eta hedatzaile. Alegia, mundu osoko prentsa bezalakoa izan dela gurea ere. Oro har, eta batzuetan ezinbestean, izugarri katolikoa izan da. Lizardi bezalako katoliko zintzo batek zera esaten zuen, “kazeta prakaduna” behar genuela, “ez sotanaduna”. Atera kontuak! Pixkanaka, gure kazetaritza laikotu egin zen, gizarteari begira jarri zen. Gaien ugaritzeak estilo aldaketak ekarri zituen. Baina oraindik ere egiteko dago testuetan oinarritutako kazetaritzaren historia. Pena da.

Historia hori berreskuratzeko lanetan jarduna zara; hor daude, besteak beste, Juan Bautista Bilbao, Batxiren edo Joseba Zubimendiren artikulu bildumak. Gaur egungo kazetari batek zer ikas dezake haietatik?

Gaurko kazetaria erredakzioan lotua dago, ez du kanpo-lanik egiten. Mundura irteteko, Internet dauka. Argazkiak egiteko, agentzia bat edo bi. Kazetaria itzultzaile huts bihurtu da, agentzien morroi. Erreportajeak egingo ditu Saharara edo Estatu Batuetako hauteskundeetara joanda, baina kaleko kazetaritza, inguru hurbileko berri ematen zuena, hori galdua dago aspaldi samar. Garai bateko kazetariak ez zuten objektibotasun asmorik. Iritzia ematen zuten aldiro, pertsonalki

engaiatzen ziren lantzen zuten albistean edo kronikan. Eta horrek estilo bat suposatzen zuen. Gaur neutroa da dena, geza. Seguru asko, kazetaritza fakultatean ere horixe ikasiko dute, estilorik eza dela objektibo izateko bidea.

Hain zuzen ere duela hamarkada batzuetako Zeruko ARGIAren aleak irakurrita, sentsazioa dut, euskara batuak ekarri zuen estandarizazioak ifrentzu hori izan duela: ez al du prentsalarioren prosak freskotasuna galdu?

Aipatu dizudan neutrotasun horren ondorioa da, ez dut uste batuaren errua denik. Horretan bada on ustean sekulako kaltea egiten ari den figura, zuzentzailearena. Erakunde publikoetan itzultzailearena da kaltegitza hori: itzultzailea dagoenez, alegia, itzulpena beti denez gaztelaniatik geureakoa, ez da deus sortzen euskaraz. Hori horrela da administrazioerik euskaldunenean ere. Horrelako zerbait komunikabideetan: zuzentzailea dagoenez, ez du ardura zabar idazteak, txukunduko du zuzentzaileak. Eta zuzentzaileak ezin die estilo bana eman erredakzioko kazetariari. Nahikoa lan dauka sintaxia jatortzen, errepikapenak bakantzen eta akats ortografikoak behin eta berriz zuzentzen. Idaztea bera bigarren edo hirugarren mailako bihurtu da prentsan. Garrantzitsuagoak dira infografia, diseinua, “atsegintasuna”...

Ildo horri jarraituz: literaturak nola lagundu dezake prentsa komunikatiboago egiten?

“Literaturak sekulako kaltea egin liezaioke kazetaritzari. Literatura ez da, oro har, prentsak bere burua hobetzeko begiratu behar duen ispilua”



ak zein gradutan egin diezaioke ihes didaktismoari?

Kazetaritzak mundua ulertzen laguntzen digu. Esaterako, Israelek egiten dituen sarraskiek luzera zein helburu izan dezaketen argitzen digu, edo argitu behar liguke: irudietatik haratagoko jarduna da kazetaritza. Alderdi horretatik hartuta, benetako kazetaritza, nolabait, beti da didaktikoa, formazaila ere badenez, iritzi-sortzailea. Nire ustez, paternalista izatea da kazetaritzak bere buruari ukatu behar diona. Irakurlea umetzat hartzea, esan nahi dut.

Stendhal-ek zioen bere helburua zela ahalik eta hitz gutxienekin ahalik eta gehiena adieraztea. Zerorrek, *Sua nahi, Mr. Churchill?* argitaratu ondoren eskaini zenuen hitzaldi batean, "izarrak loretan" esaldia adibide jarrita, elipsiaren beharra azpimarratu zenuen. Zer idatzi baino garrantzitsuagoa al da, zer kendu behar den jakitea?

Papera garestia da, orriak mugak ditu, eta egunkari-irakurleak presa dauka. Denbora pasatzeko, denbora-pasak eta gurutzegramak dakartzate egunkariek. Hortik ateratzen dugu idatzia zatika, lehen ikusian, tarrapataka irakurtzen dela, ez "denbora pasa". Nobela batek ehunka orrialde ditu. Ipuin batek dozenaka. Horietan ongi dator betelana, luzean ezin liteke beti tentsio bera mantendu. Kronika batek ordea, artikululu batek, albiste batek, lerroak dauzka, hainbeste lerro, ezta orrialde bat ere. Funtsezkoa kontatu behar da prentsan. Apainketa edertasunaren aitzikoa da. Idazle ona, txarra kentzen dakiena

da. Baratzea bezala, testua jorratu egin behar da. Baina ba ote dauka astirik, kazetariak?

Ustekozko objetibotasunaren mesedetan, hirugarren pertsonan idazten ditugu artikuluen hamarretatik bederatzia. Aberastuko ote luke kazetariaren 'ni'-ak euskal prentsa? Hurbilagoko egingo?

Protagonismoaren arriskua ere badauka nika jarduteak. Telebistako kazetariak, batez ere "berri-emaile bereziak" izaten dira horren eredu patetikoena. Kamera aurrean jarri behar izaten dute, "han bertan" daudela adierazteko: ez dira gai bertako ezer agertzeko. Atzean, adibidez, poliziaren *furgona* bat Espainiako Entzutegi Nazionallean sartzen. Zer egiten du hor kazetariak? Bere ni-a erakusten du, aurpegiz bezala hitzez. Eta dena da topikoa. Ni-a ez da interesgarria ez bada implikazio baten ondorio. Lan moldeak sortu

Literaturak baliabide batzuk dauzka, kroniketan, esaterako, erabilgarriak: kontaktaren linealtasuna apurtzea, dialogoak tartekatzea, alderaketa, metafora... Baina ez begiratu literaturari kazetaritza egiteko, literaturak sekulako kaltea egin diezaioke kazetaritzari. Ez dezagun kazetaritza kronikan edo artikulugintzan murriztu. Kazetaritza askoz handiagoa eta anitzagoa da hori baino, eta literatura ez da, oro har, prentsak bere burua hobetzeko begiratu behar duen ispilua. Are gehiago, idazle handi askok prentsa eduki zuten lehen eskola: zehaztasuna, interesgunea, apainkeriarik eza... Prentsarako idatziz ikasi zuten ganoraz idazten Hemingwayk eta García Márquezek, arrunt estilo desberdineko bi handi aipatzearren.

Zure literaturak prosa didaktikoari ihes egiten diola esan izan duzu. Kazetariaren estilo-



behar du estiloa. Bestela estilismoa egingo du kazetariak, alegia, kazetaritza ez beste zerbaiz. Exhibizionismoa, askotan.

Mark Twain: "Adjektibo bat ikusten baduzu, hil ezazu". Zerrendatuko al zenizkiguke prentsak, zure ustez, kalitu beharko lituzkeen adjektibo batzuk? Eta izenak? Aditzak?

Alejo Carpentierrek ere horrelako zerbaiz zioen, hizkeraren zimurrak direla adjektiboak. Orain gazteek dena "kristona" juzgatzen dute, "hiper" edo "super" bezala. Hainbesteraingo erreplikatzek, honez gero ez dute ezer adierazten. Dena *superrona* baldin bada, zer edo zer "ona" dela entzundakoan on huts horrek "oso ona" izan behar duela pentsatzen dugu! Zer kendua ez da falta, baina honakoak lehenetsiko nituzke: "euskal" kontzeptuarekin zerikusiduen guztia, "atzerri" kontzeptuarekin zerikusiduen guztia, "arrakasta" kontzeptuarekin zerikusiduen guztia, "ospea" kontzeptuarekin zerikusiduen guztia, "abentura" kontzeptuarekin zerikusiduen guztia...

Iñigo Aranbarrik ARGIAN zera esan zuen euskal prentsa: "Bi arrisku nagusi ikusten dizkiot. Bata, ez dakidala nolako gaitasuna dugun gaur egungo errealitatea erakusteko". Iritzi berekoa al zara?

Esan dizut kazetaria lotua dagoela, mahaitik ari dela. Eguneroko kuota bete behar du.

"Lan moldeak sortu behar du estiloa. Bestela estilismoa egingo du kazetariak, alegia, kazetaritza ez beste zerbaiz"

Liberatuko al lukete inor Balentziaga kasua bi hilabetez ikertzeko? Edo joan deneko berrogeita hamar urteotan amiantoak gaixotu eta hildakoen inguruko erreportajea egiteko? Ez, ez da errentagarri. Eta bestetik, botereak kontrolpean dauzka medioak, publizitatez eta subentziaz. Prentsa ez da librea, eta hedabide publikoak, publikoak ez baina gubernamentalak dira. Ez da kasualitatea ETBk dokumentalismoa sustatu ez izana. Ez dago ikerketa kazetaritzarik, ez da komeni. Prentsa, kazetaritza, kontraboterea izan zen inoiz, baina gaur...

Idazleak ikusten ditut euskarazko prentsan, baina iruditzen zait oraindik tiradera diferenteak daukela gurean: batean daude idazleak, bestean kazetariak. Zein da zure iritzia?

Tiradera diferenteak... Hori horrela da inguruko hizkuntzetan ere. Eta ez dut uste kazetariak bere burua menostua ikusi behar duenik idazletzat hartzen ez dutenean. Idazle onak ez daukan trebetasuna dauka kazetari onak, badaki gaiari nondik heldu, nor elkarriketatu, non dokumentatu... Kazetariak lan literario ederrak egin izan dituzte, idazle egin izan dira. Baina idazleak, idazle literarioak, nekez egingo du kazetaritza onik. Har itzazu kronikak, adibidez: oso desberdinak dira idazle batek eginak eta kazetari batek eginak. Igoaleko giharra daukate kazetariak egindako kronikek! ■

Literatura

Autofikzioa

Homerok nahiko luke Ulises izan

“Autofikzio” esan duzu kafesne literario batean. Nako ederra. Mahaian denak geratu zaizkizu arretaz begira. Moda-modako hitza baita; geroz eta idazle gehiagoren apustua. Garaiak aldatu diren seinale: Homerok, orain, ez du aski Ulisesen abenturak kontatzearekin. Bizi egin nahi ditu.

GORKA BEREZIARTUA

DELA astekari honetako *Ttakun (H)errenka* saillean, Katixa Agirrerren lumaz; dela *Jakinen*, Uxue Alberdiren artikulua batean; dela *Berrian* Kirmen Uriberen azken nobelari Beñat Sarasolak egindako kritikak... “Autofikzio” hitza nonahi ageri da azken aldian. Lagundu du, asko, Durangoko nobedadeen artean Hanif Kureishiren *Intimitatea* egon izanak, Harkaitz Canok itzulia, Txalapartak argitaratua; eta lagundu du, ez gutxiago, Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* (Elkar, 2008) klabe autofikzionalean idatzita egoteak, ondarrorak duen erakargarritasun mediatikoak nobela motaz hitz egitea ekarri duelako. Lehenagotik ere bageneuzkan, kuantu, autofikzioak euskaraz: Annie Ernauxen *Gertakizuna* eta *Lekua* argitaratuak zituen Igelak –Joseba Urteaga itzultzaile–, baita Amélie Nothomben *Durduzaz eta dardaraz* ere –Joxean Elosegik euskaratuta–. Sailkapenean sartu ez ditugun beste hainbat liburuk ere mereziko lukete zerrendan egotea. Eta, ziur, jaioko dira berriak, modak, moda izan nahi badu, jarraitzaileak behar dituelako.

Zer arraio da?

Oximorona, edo antzeko zerbait da autofikzioa: itxuraz elkarrekin talka egiten duten bi terminoren uztarketa; autobiografia eta nobela nahastuta zerbitzatzen den *kubata*. Serge Douvrovsky kritikari eta idazle paristarrak erabili ei zuen aurrenekoz 1977an, berak idatzitako *Fils* nobela sailkatzeko. Lehenago ere tankerako liburuak bazirela kontuan izanda –zerrenda luzea aurki dezakezue www.autofiction.org webgune frantsesean, tradizio literarioa sailkatuta–, lasai asko esan dezakegu Douvrovskyk ez zuela genero berririk asmatu. Baina, Angel Errok esango lukee-

Autofikzioaren azken aldiko gorakada erantzun bat izan liteke, idazleek liburuaren debaluazioari emandako erantzuna, hain zuzen

Beheko argazkiko erretratuan, Enrique Vila-Matas idazle kataluniarra. Autofikzioaren alorrean lan sano interesgarriak egin ditu: *Paris no se acaba* edo *Dietario voluble* besteak beste.

nez, “oro errana da, baina ez nik”: sarritan, aski izaten da gauza berari izen diferentea ematea, fenomeno berriaren antzezlanak jokatzen hasteko.


... ondo, baina, zergatik moda hau?

Ez gara abentura teoriko eta argumental handietan galduko. Literatur teoriaz ia ezer jakin gabe, jurnalista honi buruhauste handiak ekarriko litzioke artikulua garaiz bukatzeko.

Zertxobait gehiago dakigu industria editorialak azken urteetan izan duen bilakabideaz. Eta industria diogunean, liburu usina handiez ari gara: ingelesezko, frantsesezko, espainolezko liburuak editatzen dituztenez. Horietan, geroz eta ohikoagoa bilakatu da *People* aldizkariko azala mereziko luketen pertsonaiek “beraien” liburuak kaleratzea: futbolariak, telebista aurkezleak, aktoreak... Eta liburu horiek saldu egiten dira, asko. Zaplanak ordea, zertzena behar izaten du enborrarekikoak bukatu nahi badira. Ikuspuntu horretatik, autofikzioaren azken aldiko gorakada erantzun bat izango litzateke; idazle batzuek

liburuaren debaluazioari emandako erantzuna, hain zuzen ere. Irakurleak bizitza pribatuen gose direla? *Voyeur* hutsak? Idazleak bere gaueko zurrungak, goizeko nekeak eta eguerdiko sexu arazoak eskaintzearen truke –errealitatefikzio jolas kilikagarriekin, gainera– irakurleak eskuratuko ditu. Formulak funtzionatzen du.

Lan teoriko sakonagoen esperon, autofikzioak dagoeneko zerbait lortu du, unibertsitarioak beren bizitzarekin zer egin asmatu ezinda ibiltzen baitira: abenturak bizi, Ulises izan? Letren mundu lasaian murgildu, Homero bezala? Orain ez dago zalantzarik: biak egin ditzakete. ■



Liburuak

KRITIKA

Ezer baino lehen. Arantxa Iturbe.

Elkar, 1992.

143 orrialde. 13,65 euro.



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

Hona euskal *best-seller* bat

KIKE AMONARRIZEK eta Joxerra Garziak jarri didate puntua, beraiek batere jakin gabe, liburu honetaz hitz egiteko. Euskarazko *best-seller*-en premia azpimarratu zuen Amonarrizek, HUHEZIK antolatu duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa titulazioko eskolan. Garziak berriz, joan den asteko ARGIAN, beste nonbait jarri zuen letra larria: kalitatezko produktuetan, liburu jasotetan.

Nola ez dudan busti nahi zikulu-saltsa horretan, beste plan bat proposatuko dizuet: hartu euskaraz ondo saldu den liburu bat –Arantxa Iturberen *Ezer baino lehenek* badarama denbora “18. edizioa” dioen gerruntze gorriarekin–, eta nazioartean gehien saldu den liburu ereduarekin erkatuko dugu.

Hamazazpi ipuin bildu zituen Iturbek 1992ko liburu honetan; eta ipuin horiek laburrak dira, hiruzpalau orrialdetakoak, bi salbuetsita. Uste dut hori esanda badaukagula nahikoa material literaturaren soziologia gure artean zein diferentea den ikusteko. Esan nahi dut: ipuin liburu bat *best-seller*? Ez duzu maiz ikusiko horrelakorik hemendik kanpo. *The New York Times*en saldunen zerrendan, lerro hauek idazterakoan, bost nobela daude gailurrean; ohikoena da hori.

Baina segi dezagun *Ezer baino lehenekin*. Ipuinak zer dira, thriller modukoak? Ezinezko amodioak agertzen al dira? Erdi Aroan girotuta al daude? Ez, ez eta ez. Zabalegi jotzea den arren, giza-harremanak dira ipuin guztien ardatza, gaur egungo bizimodua islatzen dute, eta amodiozko istorioak, azaltzen direnean, ironiaren –eta sarri umore beltzaren– filtrotik pasata daude. Ez Grisham, ez Follett, ez Rowling, ez antzerako ezer. Puntu bakarrean egingo lukete bat Iturberen liburu honek, eta aipatu egileenek: formaren araztasunean. Oso erraz irakurtzeko liburua baita *Ezer baino lehen*, konplikazio narratiborik gabea, hizkera bizi eta freskoa darabilena, eta edozein irakurleri gomendatzeko modukoa.

Baina “edozeinek irakurtzeko moduko” izate horrek ematen al dio *best-seller* izaera liburu bati? Nik uste dut ezetz. Nik uste dut *best-seller* diogunean, gehiago hitz egiten dugula liburu-formula batez, ezinbestean irakurterraza, baina baita gehiago ere; hitz egiten dugula formula horrek arrakasta duen inguru kulturalaz; hitz egiten dugula, azken finean, produktua bere merkaturuan txertatzeko optimizazio bidez –literaturatik urrun dagoen eztabaida, bestalde–. *Ezer baino lehenek* asmatu zuen bide horretan, eta eredu interesgarria izan daiteke konturatzeko, nazioartekoaren molde differentekoa izan beharko duela etortzeko den euskal *best-seller* handiak. ■

Dilema handi bat Morilloren azken nobelan

Bernaten neska-lagunari esan diote minbizia daukala, eta aurreratu diote urtebetez baino ez dela biziko. Berri hori jasotzean ataka zailan ikusiko du bere burua Bernatek. Izan ere, Fernando Morilloren *Zure arimaren truke* liburu-protagonista ikertzailea da –ingeniari informatikoa eta fisikaria izateaz gain–. Bada, honako dilema jarriko dio bizitzak begien aurrean Bernati: Iruri izeneko neska-lagunaren ondoan egon, bizitzeko geratzen zaion azken urtean ala inoiz egin duen ikerkuntzarik harriarrienean murgildu, Iruri urrun utzita, baina betiere haren bizitza salbatzea helburu. Bernat edozertarako prest egongo da Iruri salbatzeko, baina nobelan zehar galdera ugari sortuko zaizkio. Minbiziaren aurka lan egiten dutenei eskainia dago liburua. ■



Zure arimaren truke.

Fernando Morillo.

Txalaparta.

223 orrialde.

16,50 euro.

Murphyren legea zientziaren bidez azaldua

Zer arraiorengatik, gosaltzeko hartu nahi duzun ogi-xerra hori, dena gurina eta marmelada, erortzen ote da beti lurrera alde txarretik, hau da gurinarenetik? Galdera horren erantzuna aurkituko duzu liburu honetan, baita Murphyren legeak dituen beste misterio askorena ere. Richard Robinson zientzia-dibulgatzaile ospetsuaren *Ogi xerra zergatik erortzen den beti gurinaren aldetik* liburua kaleratu baitu Gaiak argitaletxeak. Estilo oso pertsonalez, fikzioa eta errealitatea nahasiz, eguneroko pasadizo dibertigarriak azalduko zaizkio liburuan irakurleari. Gainera, fenomeno bakoitzaren azalpena ilustrazioz hornitua dator. ■



Ogi xerra zergatik...

Richard Robinson
(Itzul.: Julen Kaltzada).
Gaiak.

296 orrialde. 22 euro.